



HERRIKO KONTSEILUKO ERABAKIA ORTZAIZEKO HERRIA

2024ko apirilaren 4ko bilkura

Bi mila eta hogeita lauko apirilaren lauan, arratseko zortzitan, Ortzaizeko Herri Biltzarra ohi bezala deitua izan-eta, legeak behartzen duen kopuruan bildu da, biltzarren ohiko lekuan, Jean-Marc OÇAFRAIN auzapeza lehendakari izanik,

Hor zirenak : AYÇAGUER Elorri, CASIRIAIN Elena, CHAMALBIDE Corinne, DACHAGUER Peio, FALXA Odile, GOICOECHEA Iñaki, HEGUY Antton, IDIART Claudine, IÑARRA François, IRIART Jean Claude, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie.

Bilkurako idazkari izendatua izan da : IDIART Claudine.

Deialdiaren eguna : 2024ko martxoaren 29a

Afitxatze eguna : 2024ko martxoaren 29a

12. ERABAKIA: SCEA LURREKOArekiko URTE ANITZEKO HITZARMENAREN LEHEN EMENDAKINA IZENPETZEA (3.3 nomenklatura)

Elorri AYÇAGUER eta Jean-François MATEO, gaiarekin interesak dituztela-eta, gelatik atera dira.

Auzapezak Herri Biltzarrari oroitarazi dio, bazkalekuentzako urte anitzeko hitzarmen bat izenpetua zela SCEA Lurrekoa-rekin 2023ko maiatzaren 2an. Izatez, SCEA Lurrekoak 2022tik terreña arrazako behiak herriko bazkalekuetara eramaten ditu.

Auzapezak hitzarmen horren 2. artikulua aldatzeko (hitzarmeneko ondasunei buruzkoa) lehen emendakin proiektua aurkeztu du. Haren arabera, A27 eta A40 lur sailak ezarriko dira hitzarmenaren hartzailearen esku.

Auzapezak oroitarazi du bazkalekuen erabiltzea beste laborariei bezala fakturatzen dela, Herri Biltzarrak erabaki baldintzetan.

Herri Biltzarrak, Auzapezaren azalpenak entzun eta deliberaturik,

- **BAIMENA EMAN DIO** Auzapezari, Lurrekoa SCEA-rekiko urte anitzeko bazkatze hitzarmenaren 1. emendakina izenpetzeko.

Hor zirenen kopurua : 15
Balizko boz kopurua : 15
ALDE : 12
KONTRA : 0
ABSTENTZIO : 0

Gorago eman egun, hilabete eta urtean, presente ziren kideek erregistroa izenpetu dute.
Laburpen egiaztatuaren baliokoa.

ORTZAIZEN, 2024ko apirilaren 4an

Auzapeza,
Jean-Marc OÇAFRAIN

Betegarria bilakatu den akta,
2024/04/19an publikatu edo notifikatu ondoan,
Eta Prefeturan pausatu ondoan 2024/04/19an.